



## LEHEN SOROSPENEN IKASTAROA

### Nori dago zuzenduta?

Larrialdi egoeretan zer egin behar den jakin gura duen edonori. Bereziki kirol arloan (prestakuntzan) aritzen direnei edo aritu nahi dutenei; izan ere, lotura zuzena du kirol-irakaskuntzaren erdi-mailako ziklo ofizialarekin.

### Nork eskainiko du ikastaroa?

Mungiako udalak *Kirol-teknikarien eskola ASFEDEBI KIIB*<sup>1</sup> entitatearen bidez.

### Bete beharreko baldintzak?

16 urte betea izatea edo 2026an betetzea.

### Zer landuko da?

- Istripua eta ingurua aztertu eta baloratu.
- Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko modua (jarrera).
- Zauritua ebaluatzeko eta zaintzeko teknikak. Egin daitekeena eta egin ezin dena.
- Lehen laguntzako teknikak.
- Oinarrizko bizi-euskarriko maniobrak.
- Erantzukizun mailak.

### Ikastaroaren egitura

- Alde teorikoa: 30 ordukoa, apirilaren 28tik maiatzaren 22ra. Plataforma bidez egin behar da. Parte-hartzaileek ordenagailua beharko dute.
- Alde praktikoa: 10 ordukoa, maiatzaren 23an (9:00-14:00 eta 15:00-20:00). Udaletxeko erakusketa aretoan (ikasle kopuruaren arabera) emango da, eta arropa eroso eta eramatea gomendatzen da.  
Ikastaroa gainditzeko, alde biak (teorikoa eta praktikoa) gainditu beharko dira.

### Izena emateko epea eta modua

- Izena emateko epea: apirilaren 14tik 23ra.
- Modua: interesa dutenek mezu bat bidali beharko dute [monitoreak@asfedebi.eus](mailto:monitoreak@asfedebi.eus), eta eurek esango diete zer aurkeztu behar duten.

Gutxieneko kopurua: 10 lagun.

Gehieneko kopurua: 30 lagun.

Ikastaroa gainditzen duten parte-hartzaileek titulu ofiziala lortuko dute.

\*Informazio gehiago behar izanez gero: [monitoreak@asfedebi.eus](mailto:monitoreak@asfedebi.eus)

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak lehen sorospenetako prestakuntza emateko baimendutako entitatea da.